

Kooperatibak Zurekin denda guztietara zabalduko du energia-eredua

**EROSKI-REN BELAUNALDI BERRIKO DENDETAN
ENERGIA-KONTSUMOAREN % 60 AURREZTEN DUTE**

- **Eredu berri horren bidez, energia-efizientzia hobetu dute; horretarako, hozteko, klimatizatze eta argiztatzeko sistema eta ekipamendu berriak erabiltzen dituzte**
- **Energia-efizientzia zero hondakinen kudeaketari gehitu zaio, eta horrek guztiak punta-puntako bihurtzen ditu EROSKI Zurekin dendak, iraunkortasunaren eta ingurumenaren politikan**

Elorrio, 2017ko abuztuaren 2a.- [EROSKIk](#) belaunaldi berriko denden energia-eredua hobetu du, eta horretarako, denda ekoefizienteen prototipo bat sortu du, energia-kontsumoaren % 60 murrizten dutenak ohiko supermerkatuen aldean.

Energia-efizientzia lortzeko, azken belaunaldiko klima-diseinua eta hozte-instalazioak erabili dira batik bat, baita LED argiztapen-sistema ere, kontrola zentralizatuta duena.

EROSKIk energia-eredu hori erabiliko du irekiko eta berrituko dituen supermerkatu eta hipermerkatu guztietan; hartara, dendak horiek Zurekin ere komertzialari jarraitzen dioten belaunaldi berrikoak izango dira. Kooperatibak aurreikusi du urtean 100 milioi euro inbertitzea denda horietan.

"Zurekin denda berrietara zabaldu aurretik, EROSKIren belaunaldi berriko dendetan dagoen energia-eredu berria testatu egin da. Sendo ari gara aurrera egiten gure konpromisoa betetzeko: energia-efizientzia hobetzea eta gure jardueraren ingurumen-inpaktua txikitzea", esan du EROSKIko Garapen zuzendariak, Javier Españak.

Hozte-instalazioak

Ingurumen-neurriak aplikatu dira hozteko instalazioetan. Zehazki, hozteko zentral negatibo bat instalatu da, CO₂-a erabiltzen duena; bestea hozteko zentral positibo da, R134 gasa erabiltzen duena. Horien bidez, energia-kantitate handi samarra aurrezten da, eta klima-aldaketa areagotzen ez duten gasak erabiltzen dira. Instalazio horretan, halaber, kontsumo elektrikoa txikitzen duen kondentsazio-sistema flotatzaile bat ere badago.

Hozteko altzariak azken belaunaldikoak dira, eta beiraz hornituta daude dendako korridoreak hoztu ez daitezen; horrez gain, produktuak hobeto kontserbatzea bermatzen dute, dagokien tenperaturari zorrotz eusten diote, eta bezeroak lehen baino erosoago egotea dakarte.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Klimatizazioa

Klimatizazioa optimoa izan dadin, energia-ereduak *roof top* sistema du. Horren barnean, etxeetarako isolamendu akustiko espezifikoa dago, eta beroa berreskuratzeke sistema bat salmenta-gelarako, hozteko zentraleko pantaila akustikoez gain.

Klima kudeaketa-sistemaren barruan txertatuta dago, horrek kontrolatzen baititu airearen tenperatura, hezetasuna eta kalitatea. Urruneko zaintza-sistema ere badago, kontsumo elektrikoa handitzen duten gertakarietarako. Urtaro bakoitzeko klima-baldintzak modu automatikotan aldatzen dira.

Instalazioan sare-aztergailuak daude kontsumoa kontrolatzeko, eta EROSKIko Energia taldeak garatutako analisi-softwarean txertatuta daude. Aurreikusitako kontsumo elektrikoa desbideratzen denean, funtzionamendu-alarmak sortzen dira.

Argiztapena

Argi guztiak azken belaunaldiko LEDak dira, eta horiek pizteko, erabilera optimizatzen duen automata bat erabiltzen da.

Neurri horiez gain, zolata flotatzailea eta isolamendua instalatu dira lokalean, hala termikoa nola akustikoa.

Hondakinak minimizatzea

Energia-efizientzia zero hondakinen kudeaketari gehitu zaio, eta horrek guztiak punta-puntako bihurtzen ditu EROSKI Zurekin dendak, iraunkortasunaren eta ingurumenaren politikan. Hartara, EROSKIren belaunaldi berriko dendetan, hondakinak gutxitu egin dira; izan ere, salmentatik kentzen diren elikagaietatik kontsumitzeko moduan den bat bera ere ez baitute botatzen, baizik eta elkartasun-erakundeei ematen. Gainera, EROSKIren Ekonomia Zirkularraren programari esker, birziklatze-zirkuituak daude lehengaietarako. Horretarako, alderantzizko logistikako prozesuak garatzen dira dendetatik plataformetara eta hornitzaileengana, ongi berrerabiltzen eta birziklatzen dela ziurtatzeko eta hondakinak minimizatzeke. Programa horren bidez, EROSKIak 32.168 tona kartoi, plastiko, aparatu elektriko eta elektroniko, pila, energia-metagailu, lanpara eta fluoreszente birziklatu zituen 2016an. Gainera, EROSKIren hornitze-katearen barnean, 47,8 milioi ontzi logistiko erabiltzen, birsailkatzen eta berrerabiltzen dira, sistema zirkular batean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)